 <b>Osakidetza</b>  <b>DEBAGOIENeko ESI</b> OSI DEBAGOIENA	<b>ETXEKO OSPITALIZAZIOA</b>	<b>INFORMAZIO-ORRIA</b>
	<b>ZERBITZUAREN ANTOLAMENDUARI BURUZKO</b>	Berrikuspena: 01 Eguna: 2021/02/10
	<b><u>INFORMAZIOA</u></b>	Orria 1 /1

Etxeko Ospitalizazioko Zerbitzua ospitaleko 4. solairuan dago.

Bost medikuz eta sei erizainez osatuta dago.

Debagoieneko eta Aramaioko pazienteak tratatzen ditugu beren etxeetan edo bizilekuetan.

Goizeko txandan eta arratsaldeko txandan egiten ditugu bisitak. Arratsaldez bagoaz, 09:00ak baino lehen jakinaraziko dizugu telefonoz.

Bisitan, gaixotasunaren bilakaerari buruz galdetuko dizugu, konstanteak hartuko dizkizugu (TA, tenperatura, bihotz-maiztasuna, oxigenazioa), tratamenduak aplikatuko dizkizugu eta zainketak egingo dizkizugu.

Taldean egiten dugu lan. Bi bilera egiten ditugu egunean (bat goizeko lehen orduan eta bestea arratsaldeko lehen orduan), paziente bakoitzaren bilakaerari buruz hitz egiteko.

Historia klinikoa elektronikoa da, beraz, pazienteen daturik galtzen ez dela ziurtatzen digu. Etxean, historiaren papereko kopia bat utziko dugu, segurtasun handiagorako.

Tratamenduak ospitaletik eramaten ditugu, non eta medikuak ez dizun txartelean sartu.

Oxigenoa edo aerosolen maskara behar baduzu, Osakidetzarekin hitzarmena duen enpresa batek eramango dizu.

Bide bat baduzu jarrita besoan, zaindu ezazu erizainak adierazi moduan. Ez du orratzik; ez diozu zure buruari lesiorik eragingo, lasai.

Analitikak egiteko odola ateratzen dugu etxean.


«Gailu» elektronikoak jartzen badizkizugu zainketa batzuk egiteko edo antibiotiko bidezko tratamenduren baterako, automatikoak dira, eta bakarrik funtzionatzen dute. Gorabeherarik badago, jakinaraz iezaguzu telefonoz.

Zainketak edo sintrom kontrolak behar badituzu, guk egingo dizkizugu; ez duzu zertan lehen mailako arretako erizainarengana joan. Hitzordua baduzu, ezezta ezazu.

Gaueko arreta emergentzietako zerbitzuak ematen du. Tabletak dituzte, gure historia klinikoa irakurtzeko. Amaitzean, eman duten arretaren ohar bat uzten digute idatziz.

Altan, hitzordu bat emango dizugu espezialista batekin, behar baduzu, edo lehen mailako arretako zure medikuari eta erizainari jakinaraziko diegu.

Debagoieneko ESIko Etxeko Ospitalizazioa

 <b>Osakidetza</b>  <b>DEBAGOIENKO ESI</b> OSI DEBAGOIENA	<b>HOSPITALIZACIÓN A DOMICILIO</b>  <u><b>INFORMACIÓN ORGANIZACIÓN DEL SERVICIO</b></u>	<b>HOJA INFORMATIVA</b>
		Revisión: 01 Fecha: 10/02/2021
		Página 2 de 1

El servicio de Hospitalización a Domicilio está ubicado en la 4ª planta del hospital.

Se compone de 5 médicos y 6 enfermeras.

Tratamos a los pacientes en su domicilio o residencia en el Alto Deba y Aramaio.

El horario de visita es en turno de mañana o de tarde. Si acudimos por la tarde le avisaremos por teléfono antes de las 9 h de la mañana.

En la visita le preguntaremos por la evolución de su enfermedad, cogeremos sus constantes (TA, temperatura, frecuencia cardíaca, oxigenación), le aplicaremos tratamientos y curas.

El trabajo es en equipo. Se comenta la evolución de cada paciente en dos reuniones diarias a primera hora de la mañana y de la tarde.

La historia clínica es electrónica lo cual nos permite no perder datos de los pacientes. También dejamos en su domicilio una historia en papel para mayor seguridad.

Los tratamientos los llevamos del hospital salvo que su médico se lo haya metido en la tarjeta.

Si precisa oxígeno o mascarillas de aerosoles se lo llevará una empresa concertada con Osakidetza.

Si tiene colocada una vía en el brazo cuídela como le indica enfermería. No lleva aguja, no tenga miedo de una lesión.

Extraemos analíticas en casa.

Si le ponemos “aparatos” electrónicos para una cura o un tratamiento con antibióticos, son automáticos y funcionan solos. Avísenos por teléfono si hay alguna incidencia.

Si precisa curas o controles de sintrom nosotros se lo haremos y no es necesario que acuda la enfermera de atención primaria. Si tiene cita, anúlela.

La atención por la noche la da el servicio de emergencias. Disponen de tablets para leer nuestra historia clínica. Al finalizar nos dejan una nota escrita de la atención que le hayan dado.

Al alta le daremos cita con un especialista si precisa o le informaremos a su médico y enfermera de atención primaria.

Servicio Hospitalización a Domicilio OSI Debagoiena